

## » TELEGRAMA

Irailaren 30ean, 19:00etan, **Gasteizko JimmyJazz aretoan** kontzertu zabala izanen da Taste of Anarchy Tourren karietara: Nasty, Aversions crown, Malevolence eta Vitja taldeek joko dute **STOP** Urriaren 1ean **Xilaba Bertsulari Xapelketaren bigarren kanporaketa** Muskildiko Posonpesenea gelan, 17:00etan: Aitor Servier, Battitt Crouspeyre, Eneritz Zabaleta, Maddi Sarasua, Ortzzi Idoate, Xumai Murua bertsolariak **STOP Gutun Zuria Irakurketa Klubak** bere ateak irekiko ditu urriaren 4tik 2017ko ekainaren 13ra bitartean. Irakurzaletasuna sustatzeko tailer hau Bilboko BBKren Mediatekan gauzatuko da **STOP**

## » KONTZERTUA

## Bai eta ez



Montse Auzmendi



### Bilbao arte portua

MAGGIO MUSICALE  
FIORENTINO ORKESTRA

Zuzendaria: Zubin Mehta.

Egitaraua: Schubert eta Bruckner-en obrak.

Lekua: Euskalduna Jauregia.

Data: irailaren 16a

Apustu txalogarria iruditzen zait *Bilbao arte portua* izeneko kontzertu handien ziklo berria. Baditugu Bilbon musika klasikoa disfrutatzeko aukerak, baina ongietorria ematen diogu ekimen berri honi. Halere, beldur berezia sentitu nuen ziklo honen lehenengo saioan. Orkestra on bat izan dugu, Maggio Musicale Fiorentino orkestra hain zuzen ere; Zubin Mehta bezalako legendazko zuzendari bat, eta oso jende gutxi zegoen Euskalduna Jauregiko auditorioan. Ezin nuen sinetsi. Eguraldi txarra? Sarrrera garestiak? Ez dakigu, baina ez zen normala.

Nahi eta nahi ez, egoera honek hoztasun puntu bat eman zion kontzertuari, hasieratik bukaeraraino, eta, nire ustez, nabaritu egin zen Mehta maisuak emandako fruituetan.

Egitarau zinez interesgarria eskaini zuten, hori bai. Amaitu gabeko bi sinfonia paregabeak: Schubertena eta Brucknerena. Eta emaitzak guztiz desberdinak. Schuberten *Sinfonia si minorrekoa D 759 Amaitu gabea* obra liriko eta poetikoa da, benetakoa maisulana. Eta bai, honen irakurketa gozo bat izan genuen, baina nahiko planoa eta, esango nuke, aspergarria. Bertsio soila izan genuen, soilegia agian, adorerik gabea. Zubin Mehta pasiboa aurkitu genuen, ez zuen partitu-

ratik inongo txinpartarik atera. Orkestrak soinu ona eta konpaktazioa eskaini zituen, baina handik aurrera ez genuen ezer bereziki atera.

Zorionez, beste poz bat hartu genuen kontzertuaren bigarren zatian. Bruckneren *9. Sinfonia re minorrekoa A 128* obra oso lan adierazkorra da, mila ñabardura gordetzen dituena, eta halaxe sentitu genuen. Aitortu behar dugu soiltasunaren bidean jarraitu zuela Mehtak, baina aldi honetan bai atera zuen partituraren arima. Lehenengo mugimenduak *Feierlich*, Gradazio misterioso eta interesgarria izan zuen. Bigarrena, *Scherzo*, lehor eta gogorra iritsi zitzaigun, behar bezala, eta une onena, dudarik gabe, hirugarren mugimenduan izan genuen. *Adagio* mirezgarria entzun genuen, mistikoa, ederra.

Ziklo honen bigarren saioa urriaren 23an izango da. Moscow Virtuosi izango dugu Vladimir Spivakov-en batutapean. Ea publikoak erantzuten duen. ■



Zubin Mehta orkestra zuzendari indiarra (Mumbai, 1936).